

INDARKERIA MATXISTEN KONTRAKO PROPOSAMENAK



INDARKERIA MATXISTEN KONTRAKO PROPOSAMENAK

Indarkeria matxistak giza eskubideen urratze larriak dira, sistema desorekatu batean, nagusiki mundu osoko emakumeei eragiten dietenak.

Askotariko kolektiboek eta bereziki mugimendu feministak urteak daramatzate haren eraztea lortzeko lanean, aipatutako urratzeak salatzen eta indarkeriarik gabeko jendarterako alternatibak sortzen.

2010ean, Mugarik Gabek, bestelako antolakunde feministekin, jendarte mugimendu eta emakume banakorekin lankidetzan, indarkeria matxisten aurkako kanpaina bat jarri zuen martxan, azken urteetan garatu diren ekimenen haria izan dena, egiturazko arrazioak eta emakumeen bizitzetan indarkeria matxistak duen eragina ikusarazita.

Kanpaina horren testuinguruan, dokumentu honek proposamen sail bat laburbildu nahi du indarkeria matxistarik gabeko jendarteetara gerturatzeko; horrek, zalantzarik gabe, erakunde publikoen **konpromiso politikoa** beharrezkoa du, bai eta eragile sozialen parte hartzea indarkeria matxistak lehentasunezko arazo politiko eta sozial gisa onartzeko eta erantzuteko.

Gainera, konpromiso hori **mugimendu feministak, emakumeen antolakundeek eta bizirik iraun duten emakumeek indarkerien kontrako borrokan eragile politiko gisa duten protagonismoaren aitortzari** lotua joan behar dela uste dugu, ezinbesteko solaskide izanda eta berdintasun politikez eta indarkeria matxistaz ari garenean beraien eskaerak eta proposamenak kontuan hartuta.

Dokumentu honek **giza eskubideen ikuspegitik, ikuspuntu feministatik eta sail artekotik**, proposamen eta konpromiso zehatzak jasotzea nahi izan dugu, egituretan aldaketak sortzeko eta aurrerapenen jarraipena egin ahal izateko bideratuak izango direnak.

EREMU ARAUEMAILEA

Esparru arauemailea, indarkeria matxistak errotik kentzera iristeko eta emakumeen eskubideak bermatzeko kontuan izan beharreko elementurik garrantzitsuenetako bat da. Zentzu horretan, ezinbestekoa da **indarkeria matxisten aniztasuna** bai eta konplexutasuna kontuan hartuko duen legedi baterantz urratsak ematea, **nazioartean ezarrita dauden estandarretara**, CEDAW eta Istanbulgo Hitzarmena kasu, gero eta gehiago gerturatzeko.

Horretarako beharrezkoa da urratsak ematea eta egun dauden esparru arauemaileen **berrikuspenean, ezarpenean, garapenean** eta **ebaluazioan** sakontzea, euren arlo guztietan (prebentzioa, ikerketa, arreta, zuzenbidea...), testuinguru soziokulturalaren eraldatzearen esfortzu erreala jaso dezaten eta emakumeek beraien eskubideez baliatzean baldintzak bermatuak izan ditzaten.

Era berean, martxan jarritako planen **eraginaren ebaluazioak** egitea ezinbestekoa da, ikuspegi feminista batekin eta modu parte hartzailean, inplikaturako eragile/subjektu guztiek parte hartzeko moduan.

Indarrean dauden araudiek jasotzen duten **indarkeria matxista kontzeptua** berrikusi behar da, indarkeriaren egiturazko dimentsioa nola berau sustengatzea dakarten botere harremanak ikusarazita eta indarkeria mota eta modu guztiak barne hartuta.

Indarkeria matxisten **biktima guztiak aitortzeko** nahitaezkoa da kontzeptua berrikustea baita eragileak ere (erakundeak, komunitatea, lan eremua...), biktima guztiek, kasuan kasu, dituzten beharrei erantzun dioen baliabideak eskura izatea bermatu dadin. Horrek indarkeria matxistaren biktima zuzen bezala beste pertsona batzuk ere sartzeko dakar, seme-alabez gain, senitartekoak edo inguru afektiboko pertsonak adibidez.

Adin txikikoen kasuan premiazkoa deritzogu:

- > Genero indarkeria biktima gisa benetako aitortza eta horren araberrako neurriak ezartzea (zaintza, baliabideak...).
- > Adin txikikoen babes eta zaintza egokia bultzatzea, indarkeria matxistako delituak dituzten gizonetako zaintza aukera kenduta, halaber, bisita-araubidea bertan behera geratzea eta adin txikikoak kartzelara joatea debekatzea.
- > Aita erasotzaileei, segurtasunerako balizko arriskuengatik, euren alaben edo semeengandik urruntze neurriak ezartzearen beharrezkotasuna baloratzea. Bereziki hiltzaileekin harremana izateko arriskua duten adin txikikoen kasuan.

Legeek, era berean, indarkeria matxistari perspektiba feministatik eta giza eskubideen ikuspuntutik ekiteko, zuzenean edo zeharka arreata ibilbidean esku hartzen duten profesionalentzat (abokatutza, polizia, fiskaltza, botere judizial, gizarte zerbitzu eta osasun arloa) **genero ikuspegiaren formakuntza izateko derrigortasuna** jaso beharko lukete, **kalitatezkoa, jarraikorra eta egokitua**.

Indarkeria matxistako kasu guztien **erregistro bateratua** behar da, gertaerak aztertzen laguntzen duena, euren hedadura eta konplexutasunean indarkerien ulermen hobetarako batera gerturatuta beharrezko hobekuntzak hauteman eta dagozkion prebentzio eta arreata politikak zehazteko.



Esan beharrik ez da eta, hala ere, ezinbestekoa da lege horiek **berriarazko baliabide eta aurrekontuen hornidura eta egokitze** nahikoz lagunduta joan behar dutela, indarkeria matxistaren erazpenean aurreratzeko egiturak sortzea bermatuko dutenak.

Azkenik, oinarritzkoa da biktimen **erreparazio eskubidea** dimentsio guztietan bermatuko duten esparru arauemaileak sortzea: kalte-ordainak, ez erreparatzeko bermea, erabateko sendatzea, poztasuna eta egiaren hedatzea.

HEZKUNTZA ETA PREBENTZIOA

Iruditeria kultural matxistaren eraldaketa eta berdintasunaren aldeko jarreretan aldatzea; garatzeko, zalantzarik gabe, aurrekontuko diru hornidura nahikoa duten **hezkuntza legeen garapena eta ezarpena** behar dute, hondoko alderdi hauek barne hartuta:

- > **Hezkidetz**a, hezkuntzan berdintasunaren irudipenarekin eta estereotipo sexistekin bukatzea, indarkeriei aurre egiteko eta identitateen berdintasunezko eraikuntza sortzeko modu bezala.
- > Genero ikuspegia **zeharka ezartzea curriculum osoan**, gutxienez derrigorrezko hezkuntzako, batxilergoko, unibertsitateko eta lanbide heziketako ikasle eta irakasleentzat.
- > Edukien derrigortasuna edota **berariazko ikasgaiak** (hezkuntza afektibo sexuala, berdintasuna, banakoaren eta taldearen ahalduntzea, indarkeria matxistaren prebentzioa, autodefentsa feminista...), era jarraituan eta hezkuntza etapa guztietan.
- > **Unibertsitateko formakuntzan genero ikuspegia** sartzeko berariazko edukiak, beraien lanean genero ikuspegia txertatuko duten profesionalak trebatzeko oinarriko elementu gisa.
- > **Hezkuntza zentroetan berdintasun planak** sendotzea, **indarkeria matxisten prebentzioa** eta planen ebaluazioa txertatuta.

Indarkeria matxistaren prebentzioak eta sentsibilizazioak, era berean, indarkeria matxistaren biktima diren emakumeen eta bizirik atera direnen **aitortza instituzional eta sozialeko** elementuak izan behar ditu, beraien ahots eta bizi istorioen bitartez, halaber, mugimendu feminista, emakumeen eskubideen aldeko eta indarkeria matxisten aurkako borrokan, eragile politiko nagusitzat jotzea.

Hezkuntza ez formala ere oinarriko eremua da sentsibilizazioa lantzeko, adin eta sexu guztietako herritarrei zuzendutakoa, kolektibo bakoitzak dituen beharrak identifikatzeko aukera ematen duen diagnostiko batetik abiatuta eta ebaluaziorako adierazleak txertatuta.

Hezkuntzako eremuetan sentsibilizazioa eta indarkeria matxistaren prebentzioa lantzeak emakumeen banako eta taldeko ahalduntzea (autoestimua, sexualitatea, autodefentsa feminista...) lantzeko ekintzak (formakuntzak, tailerak, mintegiak...) egitea eskatzen du eta, gizonen kasuan, maskulinitate hegemonikoak eraisteko espazioak sustatzen jarraitzea.

Azkenik, garrantzitsua da hainbat eremutan eraginaren ebaluazioa txertatuta duten **indarkeria matxisten prebentzioa eta salaketa kanpainak** bultzatzea jendarteko askotariko sektoreei zuzenduak: hedabideak, enpresak, hezkuntza zentroak, elkarteak, etab.



ARRETA ETA LAGUNTZA

Indarkeria matxista kasuetan laguntza eta arreta **osoa eta ahalduntzen duena** izan behar dela uste dugu. Informazioa, baliabideak eskura izatea, babesa, aholkularitza juridikoa eta emakume guztien osatzea bermatuko duen prozesua.

Zerbitzu eta baliabide horiek erabilgarri izatea emakume guztiei bermatu behar zaie, horretarako **salaketa** bat jartzea edo babes agindu bat edukitzea beharrezkoa izan gabe. Gainera, ezinbestekoa da **biktima diren emakumeak eta bizirik atera direnak** prozesu osoan zehar eskubidedun eragiletzat jotzea.

Garrantzitsua da **hala behar duten emakumeei laguntza ekonomikoak** bermatzea, beraien autonomia ahalbidetzeko eta arlo ekonomikoa indarkeriazko egoera hori luzatze-ko erabakigarria izatea saihesteko. Orobat beharrezkoa da indarkeria matxistari aurre egin dioten emakumeak benetan kontratatzea errazten duten enprekin protokoloak ezartzea, bizi duten prozesu konplexua eta euren lanean izan ditzakeen balizko ondorioak kontuan hartuta.

Indarkeria matxisten eta emakumeen bizitzetan dituzten eraginaren inguruan ikertzea eta aztertzea ikuspegi feministatik, giza eskubideen ikuspuntutik eta sail artekotik beharrezkoa da diagnostikoak egiteko eta arreta eta laguntza baliabideak hobetzeko.

Arreta horrek, era berean, **erakunde arteko koordinazio** esanguratsua eta indarkeria matxista erazteko lanean ari diren profesionalak eta arloek (berdintasun teknikariak, gizarte zerbitzuak, epaitegiak, polizia...) batera lan egitea eskatzen du.

Zentzu horretan, garrantzitsua da **arreta ibilbidea** sistematizatzea eta zabaltzea prozesuan esku hartzen duten eragile bakoitzaren funtzioekin (segurtasun publikoa, gizarte zerbitzuak, justizia langileak, emakumeen antolakundeak...), testuinguruan kokatuta, maila guztietan emakumeen behar bereziak kontuan izanda, eskuragarritasuna eta diskriminazio eza bermatuta.

Nola ez, oinarritzkoa da inplikaturako profesionalak **formakuntza espezializatua** izatea (berdintasun eragileak, legelariak, abokatutza, osasun eremua, hezkuntza, ikerkuntza...).

Erakundeen erantzukizuna, bere osotasunean, epe motz, ertain eta luzerako arretaren eta, bereziki, baliabide eta eskainitako denboraren **jarraipen eta ebaluazio** mekanismoak ezarrita bermatu behar da.



EREMU JUDIZIALA

Eremu judizialean beharrezkoa da **epaitegi espezializatuen** hobetze jarraituan eta berau osatzen duen pertsonal guztia genero ikuspegian trebatzean aurrera egiten jarraitzea. Epaitegi horien funtzionamenduak **emakume eta gizonen arteko harreman desorekatuak aitortzea** izan behar du abiapuntu eta emakumeek bizitakoaren subjektibotasuna posible egiten duten mekanismoak txertatu behar ditu.

Salatutako ekintza puntualetik harago ere garrantzitsua da, **ohiko indarkeria** ikertzea eta kondenatzea posible egingo duten mekanismoak ezartzea, bai eta askatasun sexualaren kontrako delituak, indarkeria psikologikoa eta abar bezalako **indarkeria ikusezinoak ere**.

Era berean, prozesu osoan erabakiak hartzeko orduan emakumeen ahalduntze pertsonala ekarriko duen eta beraien bizitzaren jarraipen bezala indarkeriaren bizipenaren kontakizuna eraikitzea erraztuko duen **laguntza juridiko eta psikologikoaren** garrantzia azpimarratzea beharrezkoa da (salaketa jarri edo ez jarri aurreko laguntza prozesua barne hartuta).

Zigor-arloko prozesua ezagutzeko informazioa bermatzea eta salaketa jartzearen ondorioak ezagutzea oinarritzkoa da dagozkion erabakiak hartu ahal izateko. Zentzu horretan garrantzitsua da modu errazago eta pedagogikoagoan eskubideen eta legezko prozesuen berri ematea.

Laguntza hori bereziki garrantzitsua da **kentzen diren salaketa** horien jarraipena egin ahal izateko, arrazoiak genero ikuspegi batetik aztertuta eta kasuan kasuko beharrei arreta jarrita.

Arriskuaren balorazioa espezializatutako profesionalak eta elkarteek egin behar dute, indarkeriaren handitasuna kontuan hartuta kasu bakoitzean biktimaren segurtasuna bermatzeko.

Epaitegiek **emakumeen adierazpenari** eta ahotsari, eskubidedun eragile gisa, aitortza eta balioa eman behar diote, emakumeen kontakizunari egitasuna eman eta adierazpena hartzeko egungo tresnak berrikusi.

Prozesu eta **espazioen egokitzapenak** barne hartu behar ditu:

- > Biktima eta erasotzailearen arteko harremana saihestea.
- > Biktimari adierazpena ahalik eta gutxienetan hartzea.
- > Testigantza babes eta zaintza baldintza berezietan egitea, epaiketan adierazpena egiteko egoera emozionala kontuan hartzea.
- > Horrela eskatzekotan, sexu bereko pertsonak artatua izatea, toki irisgarrietan eta pribatutasuna, segurtasuna eta erosotasuna bermatuko dutenetan egitea.

Beharrezkoa da ekintzak eta ondorio fisiko eta psikologikoak aitortzeaz gain, epaietan indarkeriek emakumeen bizitzetan duten **eragin sozialen** aitortza ere lantzea, baita dagozkion erreparazio neurriak, ehun sozialaren eta eguneroko bizitzaren jasangarritasunarekin, aisiarekin, enpleguarekin, harreman afektiboekin, parte hartze sozialarekin, ekonomiarekin, etab. zerikusia duten arloen lehengoratzera bideratuak izatea.

ERREPARAZIORAKO ESKUBIDEA

Arauen atalean jasotzen den bezala, ezinbestekoa da emakume biktimen eta bizirik atera direnentzat **Egiarako, Justiziarako eta Erreparaziorako Eskubidea** barnean jasotzea.

Pozbiderako eta egiaren hedapenerako, garrantzitsua da emakume biktimen eta bizirik atera direnen ahotsak jasotzea eta istorioak biltzea.

- > Hedabideekin batera zabalpen protokoloak lantzea.
- > Hezkuntzan eskola curriculumaren parte bezala protokoloak lantzea, istorio horiek gure memoria sozial kolektiboaren parte izan daitezen.
- > Kontakizun horietan nabarmenduko da indarkeriaren azken erantzulea beti dela erasotzailea, ondorioz berau seinalatuko da, inoiz ez emakumea.

Kalte-ordainak bermatzea, berriz ez gertatzeko, pozbiderako eta biktima eta bizirik atera direnak epe motz, ertain eta luzean erabateko sendatzerako bermeak barne hartuko dituena. Kalte-ordain ekonomikoa bere aplikazioan hobetzea: hala baremoetan nola kopuruetan, kontuan izanda egindakoaren asmotasunaren larritasuna. Feminizidio kasuetan, erabateko osatzea, baita kalte-ordaina ere, familiarentzat izan beharko da, biktimen estatutuak jasotzen duen bezala.

Laguntza sozialeko prozesuak bermatzea, baita erabateko osatzea erraztuko duten bizirik atera diren emakumeen antolakundeen eskutik ere.

Emakumeen kontrako indarkeriaren eragina handiagoa izatea ekarri duten **istema akatsak** egotekotan, erreparazioak garrantzia bikoitza du, seinalatutako eragilea ez delako soilik erasotzailea izango, baita sistema ere, eta biek hartu beharko dute egindako ekintzen erantzukizuna eta erreparazio neurriak zentzu horretan egokitu.

Erreparazio neurriak ez dira soilik maila indibidualean hartu behar, bizirik atera den emakumeari erantzuteko, bere **inguru** osoari ere erantzun behar diote, indarkeriazko ekintzen eragina jasan duenari.

Berriz ez errepikatzeko neurriak ezartzea, ez bakarrik erasotzaile zuzenarentzat, jendarte osoaren prebentzio eta kontzientzia hartzean eragin ahal duten neurriak baizik.

Erakundeek eta eragile sozialek ekitaldiak egitea, emakume biktimen eta bizirik atera direnen aitortzarako, **erreparazioaren pozbideari** begiratuko diotenak. Egiaren hedapena, sinesgarritasuna eta indarkeriazko ekintzek duten isiltasuna apurtzea bultzatuko dutenak.



*“Ez naiz ari onartzen aldatu ezin
ditudan gauzak, onartu ezin
ditudanak aldatzen baizik.”*

Angela Davis

